


PASAIA

Traineriletan orain arte Oriokoak oso indartsu agertu direla aitortu du Santosek, baina garrantzia kendu nahi izan dio ●



C. VILLAGRAN

Bi untxi aterako ditu aurten San Pedrok. Libia trainera berria izango da eta bigarrena Kalparra izango da ●

Trainerilen saria San Pedrok nahi du

JOXANJEL ALDAI / PASAIA

Gaurko pentsatutako jai ekitaldien artean garrantzitsuena eguerdiko hamabietan hasiko den trainerila estropada da. Kutxa saria dago jokoan eta lehian sei enbarkazio aterako dira: Orio, Ibaika, Zarautz, San Juango Koxtape, eta San Pedroko bi trainerila. Hondarribiko arraunlariak ere etortzekoak ziren baina ezetza eman dute azken orduan izandako arazoak medio.

Lehendabizi jubenilen txanda jokatu dute San Pedro, Ibaika eta Donostiak. Ondoren Kutxa sarirako lehia hasiko da eta bi tandetan denbora onena egiten duenak eskuratuko du. Lehendabiziko txandan Ibaika, Zarautz eta Pasai San Pedroko trainerila bat arituko dira eta biga-

rreanean, Orio, Koxtape eta San Pedroko beste trainerila.

Aurtengo arraun denboraldian oraindik gutxi agertu direlako eta San Pedro bertako jaiak direlako Sanpedrotarra klubera jo dugu eta Jose Manuel Santos delegatuarekin mintzatu gara. Jaietakoa bai, baina biharko estropada gogoz jokatu dutela aitortu digu lehendabizi. «Gainontzekoak nola etorriko diren ez dakigu, baina guk aste honetan albora utzi dugu pixkat trainerarako entrenamendua eta gaurko estropada ondo prestatu dugu» dio Santosek. «Jokoan dagoen bandera ederra da eta irabazten saiatuko gara».

Traineriletan orain arte Koxtapekoak, eta batipat Oriokoak oso indartsu agertu direla aitortu du Santosek, baina garrantzia kendu nahi

izan dio «talde onak ditugun beste batzuk ez garelako traineriletara apenas atera, eta hori ondo aprobetxatu du Oriok. Baina Oriok nekez aterako zituen hainbeste bandera gainontzeko guztiok geure indar handienak traineriletan jarri bagenitu».

San Pedroko delegatuak dioenez, trainera gogotik prestatzen ari dira. «Aurretik pentsatutako egutegia ederki ari gara betetzen. Mantso eta presarik gabe entrenatzen ari gara, eta gure helburua mutlak irailan punta puntan edukitzea da», adierazi du Delegatuak.

Bi untxi aterako ditu aurten San Pedroko taldeak. A trainerak ontzi berria erabiliko du —Libia— eta bigarrena —kalparra— batezbeste hogeituro urteko jendeak osatuko du.

Egun handia gaur da

- ☛ 07.00etan sokamuturra.
- ☛ 09.00etan dultzaineroen diana.
- ☛ 11.00etan Alkartasuna-ren dantza saioa.
- ☛ 12.00etan trainerila estropada.
- ☛ 17.00etan erraldoi eta buruhandiak.
- ☛ 17.30etan herri kirolak eta bertsolariak.
- ☛ 23.00etan Txomin Artola eta Amaia Zubiria.
- ☛ 24.00etan Iruña Band taldearekin dantzaldia.
- ☛ 05.00etan txokolate jana.

Dantza, kantaldia eta txokolate jana

AMAIA ZEBERIO / PASAIA

Euskal dantza saio paregabea ikusteko aukera izango da gaur Pasaietan. Emanaldi hau eskainiko duen taldea, Alkartasuna dantza taldea izango da. Saio berezi hau herriko enparantzan egingo da goizeko hamaketan. Jarraian, trikitalarien doinu alaiak, dantza egin nahi duenaren aukerara. Enparantzatik abiatuko dira herriko kaleetara eta egun osoan zehar arituko dira.

Txomin Artola eta Amaia Zubiriak, kantaldia eskainiko dute herriko plazan. Kaleratu berria duten diskaren ondorioz, etengabe ari dira herriko herri eta jairik jai. Belarriak goxatu nahi dituen guztiak, gaur gaueko 11etan izango du aukera.

Parranda luze baten ondoren, presarik izan ez eta etxera joan aurretik gosari eder bat egin nahi duenarentzat, txokolatada izango da goizero San Pedroko elkarteren batetan.

TALLERES TORREA
Karrozeria eta Mekanika
Euskadi Etorbidea, 61 - 2.
(Sarrera Ricardo Arrillaga)
Telefona: 39 - 13 - 90
TRINTXERPE

MUGURUZA
A R D O A K
FESTAK ONDO PASAIA
PASAI SAN PEDRO

KOFRADIA
TABERNA
Zaharren Bilkura
San Pedro kalea, 14 Tel.: 391150

PAXAY
TABERNA
Ondo Pasa
San Pedro Jaiak
Herriko plaza, 4 Tfnoa.: 399032
PASAI SAN PEDRO

NIKO Janaridenda
Sanpedrotan guztiei
jai alaitsuak
San Pedro kalea, 11 Tfnoa.: 40 11 09
SAN PEDRO

BOTERO
TABERNA
Jai zoriontsuak opa
dizkizue
PASAI SAN PEDRO

EZKERRA
HARATEGIA eta TXERRITEGIA
Agur bezero lagunak, pasa itzazue festa onak
PASAI SAN PEDRO

illunbe
BURDINDEGIA
Euskadi Etorbidea, 53
TEL.: 39 65 04
20110 TRINTXERPE



Pasaiako Udalak herri osoari jai zoriontsuak igaro ditzazuen opa dizue.

Agur bero bat herrian ez zaudeten arrantzale, preso, exiliatu, langile eta ikasle guztioi.

ZURUTUZA C.B.
BILTEGIAK

EUROCOLOR
PINTUREN
BANATZAILE
BAKARRA



Mateo Errota 3-6 lokala 27 Pol. Tfñ.: 47.02.71
MARTUTENE DONOSTIA